

**PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA**  
**BILBOKO LIBURU-AZOKAREN "URREZKO LUMA"**  
**2000-VI-7**

Gizakiok oso motelak izaten gara gure aurretikoen edota ingurukoen egintzak eta lanak gogoratu eta txalotzerakoan. Sarritan gertatzen jaku euskararen alde lan oso handia egin daben pertsonak erdi ahaztua izatea. Honetan, gainera, azken urteotan halako etendura negargarri bat jazo izan jaku, gazte askok ezer gutxi dakiela gerra aurrean nahiz gerra ostean jo eta ke euskararen alde lanean jardun izan daben hainbati buruz.

Hori dala eta, poz izugarria hartu neban aurtengo, 2000ko bagilaren 5ean Pedro Pujana Agirregabiria abade euskaltzaleari argitaletxeek Bilboko liburu azokan omenaldia eskaini eutsoenean. Egin-eginean ere, euskal kulturaren alde egindako lana txalotu nahirik "**urrezko luma**" emon eutsoenean. Egunkarietako hainbat kazetari bere zurtz eginda geratu zirala esango neuke, oso gutxik ezagutzen ebelako gure gizona.

"Karmel" aldizkari honetan aspalditik ezagutzen dogu. Hainbat lan idatzi izan ditu bertan, batez bere azken aldi honetan. Hori dala eta, lerro honeen bidez gure irakurle zarenoi gizon euskaltzale honen bizitza eta lanak aurkeztu nahi deusueguz. Aurreko alea beteta egoala eta argitaratzeko lekurik

izan ez genduanez, oraingo honetan garbitu gura ditugu gure zorrak, Pedro Pujanak, bizi dan bitartean gure esker ona ezagutu dagian.

Bilboko liburu-azokan izandako ekitaldian parte hartzeko aukera izan neban Rikardo Badiolarekin batera. Hurrengo lefroetan han esandakoak batuko ditut, labur-labur, zuok bere Pedro Pujana idazle euskaltzalea hurragotik ezagutzeko aukera izan dagizuen. Bizitzako barriak emotea neure esku izan zan, eta idazlanen barri zehatzak eskaintzea Rikardo Badiola euskaltzain urgazlearen kontura. Hona hemen, ekitaldi horretarako gertatuta berbaldiko atal nagusienak:

### **Jainkozalea eta herri-maitalea**

"Aramaioko semea eta lanbidez itzultzailea izan eta liburu artean bizi nazenez poz handia emon eustan, aurtengo Bilboko Liburu Azokan Pedro Pujana Agirregabiria abade euskaltzaleari "Urrezko luma" emoteko ekintzan berba batzuk egiteko eskariak. Egin-eginean bere, Pedro Pujanari egiten deutzazuen goratzarre hau, era berean, aramaiotar, itzultzaile eta liburuzale guztiontzat bere ohorezko egintza dalako.

Nik, ez ditut Pedro Pujanak bizitzan zehar euskara arloan egin dituan lanak aztertuko. Hori ondo baino hobeto egingo dau Ricardo Badiolak. Nik gaur goratzarre egiten deutzogun gizon honen barruko bizi-indarrari begiratu gura deutzot batez bere. Ageriko egintzak txalotzen dituen gizarte honetan, oso onuragarria izan geinke pertsonen bizitzan eragile izan den bizi-iturrira begiratzea.

Halan da bere, badakigu asmorik onenak ezer gutxitarako balio izaten dabela egintzaz jantzi barik; baina, era berean, egintzak, gehienetan, ezer gutxitarako izaten dira asmo onez eginak ez diranean. Gaur gogora dakargun abade euskaltzale honengan egintzak eta asmoak estu-estu buztarturik ikusten ditut.



Pedro Pujana Agirregabiria jaunak txiki-txikitatik bereganatu zituan bizitzan zehar euskarri izan dituan erlijiotasuna eta herri-maitasuna. Ez eban urrutiko eskoletara egia bila joan beharrik izan. Etxean bertan ikasi eban euskara irakurten eta maitatzen aitak lagunduta. Aita oso bertsozale eta abestizale izan ei eban. Filosofia ikasten ebilela Jose Migel Barandiaranek eskatuta 2.000 bertso inguru jaso eutsozan. Zoritxarrez gerraldian galdu ziran paperak. Aita, era berean, oso sinestedun jainkozale zintzoa zan. Negualdian, egunak laburtu eta gauak luzatzen zirenean, sutegiko txingarren argitan, etxeko guztiak entzuteko eran Francisco Lardizabalaren "*Testamentu Zar eta Berrico Condaria*" irakurten eutsen. Gipuzkeraz idatzita egon arren ez ei eben aditzeko arazorik izaten.

Horrela, txikitan Anbotoko magalean euskararekin eta natura zoragarriaren sortzailearekin hartu-emon estuetan bizi izan zanak barru-barruan izan ditu bizitza osoan zehar Jainkoaren presentzia maitagarria eta euskararen gozotasun paregabea. Gurasoak etxean ereindako hazi onak lur aukera-aukerakoa aurkitu izan dabe Pedoren bizitza luzean zehar.

Egia esan, nik nahiko berandu ezagutu izan dot Aramaioko Oletako seme hau. Nire auzotik mendiak igaro eta bestaldean dagoan Oleta, ostera, hur-hurreko lurraldea izan dot beti. Aita Lino Akesolok eta Aita Leon Aranguren oletar karmeldarrak emon custeen beronen barri. Gero hurragotik ezagutzeko aukera izan dot, *Karmel* aldizkarian "*Aramaio Araba ote*" idatzi nebanean, berak "*Oleta Aramaio ote*" erantzun eustanetik. Aurrerantzean lagun izan dot eta hurragotik ezagutu dot beronen bizitzako ibilbidea.

Handi-handika esanda honetara laburtu daikegu bere bizitza luzeko ibilaldia: Oletan 1915eko bagilaren 28an jaio, ume-tako urteak bertan egin, gaztetan 14 urte zituela seminaria joan, eta filosofia ikasten ebilela gerrara. Gerraldian *Martiartu* batailoiko kide izanik Elgetan, eta Barakaldo-Sestaoko fabrikak jagoten jardun eban. Frankistak Bilbo hartu, eta *Martiatu* ba-

tailoia errendidu zanean, hiru egun hor ondoan dagoan Arriaga antzokian egin zituan. Gero hiru hilabete Logroñoko zezen-plazan. Han egin ei eben sakabanaketa: frankistekin ondo konpontzen ziranak etxera, abertzale ospe handiegia eukeenak espetxera, eta aparteko markarik ez eukeenak (euron artean gure Pedro) lanera. Eskerrak ez ebela jakin Elgetatik idazlanak bialtzen zituala *Euzkadi* egunkarira! Katibuen lanbatailoian jardun eban Aragoian eta Katalunian zehar Gironaraino, frenteko bideak eta lubanak egiten.

Gerra amaitutakoan batailoiko buruak ea zer asmo eukan itandu, eta berak abadetzarako ikasketak jarraitzekoa erantzun ostean, egun batzuk barru etxera bialdu eban. Heldu eta aste gutxi barru barru Gasteizko seminaria. 1944ko bagilaren 29an, 29 urte egiten zituan egunean sagaratu eben abade Gasteizen. Handik hiru egunera emon eban meza barria Muxika-Oletako Andra Maria parrokan.

Eta abade gazte-gazte zala, hara non ikusten dogun Jerez de la Fronteran (Cadizen) 1944. urtetik 1948. urterarte. Lau urte egin zituan han, herririk herri misiolari-lanetan, bertan lancan ebulan Juan Jose Agirre bere abade lehengusua gaixotu zanean ordezeko lanak egiten. Gaztea izanik gogotsu ekin eutson hango lanari.

Halan da bere, hango bizimoduak ez eutson ezertarako astirik emoten. Berak espirituzko barru-bizitza jorratu gura eban eta Gasteizko gotzainari elizbarrutira itzultzea eskatu eutson. Bertara etortzerakoan Eskoriatzako parroko egin eban. Eta bertan jardun eban bi urtetan zehar.

Asegaitza zan, haina, gure gizona. Hainbeste zereginek gogo-bizitzarako asti gutxi emoten eutsola, eta kristau-bizitza sakonagotik bizi gurean jesuita izateko bidea hartu eban. Horrela, 3 urte Urduñan (nobiziatuan) eta beste 3 Oñan (filosofia eta teologia sakontzen) eta urtebete inguru Salamankan.



Oñan jazo jakon bere bizitzan eragin handia izango eban zera. Aita Altunak euskarako eskolak emoten eutsezan jesuita gipuzkoar euskaldun gazte batzuei. Salamankara linguistika ikastera joatean, irakasle barik geratu ziran. Pedrori eskatu eutsoen irakasle izateko. Honek ez egoala gertatuta erantzun. Baina hareek hartzeko behar zituan liburuak ondotxo jantzita eukeen liburutegian eta gertatzeko. Apirilan hasi eta uda osoa egin eban gramatika gaiak gertatzen, batez bere geroago hain gogoko izango eban aditza aztertzen. Horrela hasi zan euskara sakonetik ikasi eta irakasten. Hainbat koaderno bete ei zituan apuntez. Horren emaitza izango ziran geroago argitaratuko zituan *Euskal Aditza bizkaieraz* eta *Oletako aditza* liburuak.

Oñatik Salamancara bialdu eben, urtebete egin ebala bertan. Gero Euskal Herrira, Bizkaiko Portugaletera, eta hemen beste urtebete. Horrela, jesuita izan zan zortzi urtetan zehar 1958an barriro eleizbarrutira aldatu zan arte. Egin-eginean bere, gure gizonak aseगतitza izaten jarraitzen eban, eta hori ikusirik, jesuiten bizimodua ez etorkiola ondo eta barriro abade-bizitzara itzultzeko gomendatu eutsoen Ordenako nagusiek.

Gasteizeko elizbarrutira itzultzerakoan Angiozarrera bidaldu eben, 9 urtetan zehar bertako parroko izan zala. Aukera ederra izan eban inguruko baserritarren artean ahozko itaunak egin eta bertako aditzaren hainbat bereizketa jasoteko. 1967an Morgara etorri zan, bertako abadea zan bere anaia zaharrena gaixotu eta erretiratu zanean. Bertan izan zan 1973rarte. Urte oparoak izan zian Morgakoak, astia eukanez bere lan garrantzitsuenak aztertu eta jorratzen jardun eban eta. Handik Arteagako Gautegizera aldatu eben, bertan egin zituela beste 12 urte. Hemen bere jo eta ke, euskarako idazlan eta liburuak idatzi eta inprimategirako gertatzen. 1985ean 70 urte egiterakoan, erretiroa hartu eta Begoñako abade-etxera etorri zan. Ordutik hona, sasoi ona izanik, basilikan jardun izan dau laguntzen, batez bere euskarako mezetan eta euskaraz errosarioa errezetan. Eta euskaraz idazten jarraitu dau.

Beti iruditu jat, azalekoak gora-behera, Anbotoko harkaitz gogorraren antzeko tantai zahar handi bat. Sustarrak lurrean sendo sartuta, haize eta edurrei gogor aurre egiten. Bizitza luze osoa euskarari eta eleizari eskeinuta, inoiz nekatu barik lan eta lan.

Eskaini bere, bizitza osoa zerbitzuan eskaini izan dau. Hortik, batez bere, gizon honen handitasuna. Esan dogun moduan barru-barrutik bizi izan ditu jainkozaletasuna eta euskararenganako eta gure herriarenganako maitasuna. Ibili dan herri danetan jardun izan dau buru eta bihotz herritarren zerbitzuan. Han nahiz hemen, beti bere eginkizunak zintzo betetzen ikusi dabe herritarrak. Begoñako Basilikako hormak berbetan jakingo balebe, hainbat zertxo esango leuskigue. Errosario santua irratitik errezetan entzunda ezaguna egin jaku beraren ahotsa Bizkaia osoan.

Baina barruko espirituzko bizitzari lekua egiteak, ez dau gure herriari eta euskarari beti izan deutesen maitasunetik aldendu. Jo eta ke, inoiz atzera egin barik jardun dau euskara aztertzen, batez bere, bere herriko euskararen berezitasunak eta edertasunak batzen eta zabaltzen. Beraren lanari esker gaur egun hobeto ezagutzen dogu Araba aldeko antzinako euskalkiaren aztarnatzat jotzen dan Oletako euskara.

Gaur **urrezko luma** emoten deutsozue euskararen eta Euskal Herriaren alde egindako lan zabala eskertzeko. Beroni zor deutsogu, izan bere, euskaldunon eskubideak eta askatasunak batzen dituen "*Bizkaiko Forua*" euskaraz izatea. Urrerzko luma hori aurretik jaso izan dituen jendaurreko esker beroen osagarri izango da.

Hainbat erakunde eta elkarteren begirunea jaso izan dau Pedro Pujanak. Horrela Euskaltzaindiak urgazle izendatu eban 1979an, eta ohorerzko euskaltzain 1995an. Itzultzaileen elkarteak ere ohorerzko itzultzaile izendatu eban, arlo orretan bide-

urratzaile izan delako "*Bizkaiko foruak*" liburu teknikoa itzul-  
tzerakoan.

*Bizkaiko Foruak* liburu ederra argitaratu ostean (1983an) Bizkaiko Aldundiak zidarrezko plaka dotore bat emon eutson honako idazkuna daukana: "BIZKAIKO FORUAREN ITZULTZAILE OSPETSU DAN PUXANA" TAR KEPARI ESKER ONEZ ETA GOMUTAZ BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK. 1983GNEKO BAGILAN". Ahaldun nagusi zan Jose Maria Makua jaunak emon eutson Arteagako Gautegizen.

Aramaioko udalak bere, ez dau atzetik bili gura izan bertako seme honen bizitza eta lanak gorai patzerakoan. Igaz "Seme kutun" izendatu eban eta bertako urrezko domina eta honako hau dakarren plaka emon: "ARAMAIOKO UDALAK 1998KO URRIAREN 14AN, HONAKO HAU ERABAKI ZUEN: PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA JAUNA, ARAMAIOKO SEME KUTUNA IZENDATZEA. LORE JOKOEN MENDEURRENAREN OSPAKIZUNAREKIN ETA HARTARAKO BIZENTE GOIKOETXEAK EGIN ZUEN MEZA BERRESKURATZEAREKIN BATERA ERABAKI HAU GAUZATU DUGU. ARAMAION, 1999KO IRAILAREN 26AN". Ondoezik ebilela eta bertara joaterik izan ez ebanez, ezaugarriak Bilboko Euskaltzaindiko batzar-aretoan emon eutsozan, Euskaltzaindia osoa batuta egoala, Aramaioko alkateak.

Amaitzeko, eskerrik beroenak aramaioarron eta euskaltzaleon izenean, bizitza osoa gure herriaren zerbitzuan emoteaz gainera euskara sakontzen eta plazaratzen egin dozun lan ugarigaitik. Zure lanei esker hobeto ezagutzen ditugu gure askatasunak eta eskubideak batu eta gogoratzen dituan "Foruak", eta gure herriaren ezaugarri nagusia dogun euskara".

### **Idazle, itzultzaile eta ikertzailea**

Esan dodan modura, nik Pedro Pujanaren bizitzako gorabehera garrantzitsuenen barri emon ostean, Rikardo Badiolak ekin eutson beste hainbat gehigarri gogora ekarriz. Bizitzako



azken urteetan, hainbat argitalpen tarteko zala, berarekin izandako hartu-emon estuak eta ugariak aitatuz. Baina, batez ere Pedro Pujanak bizitzan zehar egindako lanen barri emon euskun, beste askoren artean honakoak gogora ekarriz:

“Zuetariko batek baino gehiagok ezagutuko dituzuen aldizkarietan parte hartu izan deusku olertar honek. Hemen, zuek larregi ez nekatzearren aldizkari-agerkari behinenak adierazoko ditut, batzuk desagertuak izan arren: *Euzkadi* egunkaria, 1937; *Zeruko argia*, 1958-1967; *Agur*, *Zer*, *Karmel*, *Kardaberaz*, *Euskarazaintza*, *Euskara*,... Azken hau Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala.

Eta argitalpen sakon, mamitsuetan, liburugintzan, hurrengook aitatuko ditugu: edaniko iturrietariko bat Aita Isidro Bazterrika, Estibalizko beneditarra izan dau gure Pedrok, haren ADITZA deritxon liburukia. Eta hemendik aparte, hurrengook:

1.- *Euskal Aditza bizkaieraz / Flexiones del verbo vizcaíno*. Bilbon, 1970. urtean.

2.- *Aitortu zer dela eta?*. Bilbo, 1972. Argitalpen hau D. Borobio delakoaren laguntzagaz argitaratu eban.

3.- *Bateoa*. Bilbo, 1973. Liburuki hau be, D. Borobioren laguntzagaz argitaratu zenduan.

4.- Eta 1978. urtean, Euskaltzaindiak antolaturiko Euskaltzaindiaren VIII. Batzarrean, Mikel Zarate idazle-abade lezamarrari laguntzen ibili zinañan “*Euskara batua eta euskalkiak*” deritzan txostenean. Txosten hau Bergaran aurkeztu zenduan Mikel Zarate jaunaren bitartez, Arantzazuko Biltzarretik 10. urteurrenean.

5.- *Oletako euskal aditza, hikako jokabidea*. Vitoria, 1977.

6.- *Oletako euskal aditza / El verbo vasco de Oleta, flexiones bika del valle de Leintz (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta,*


*Arrasate*); *Del Valle de Anguiozar / Bergara, de Zeanuri y de la zona de Vitoria*. Vitoria, 1979. Diputación Foral de Alava. Consejo de Cultura.

7.- *Bizkaiko Forua* edo FORU BARRIA, 1926. urtean idatzia, baina gure Pedrok euskaratuta 1981. urtean argitaratu zana. Pedro Puxana izan dogu, Jose Estornes Lasa, Erronkarikoa, lankide eta Foru adierazle ebala, Bizkaiko Forua euskaratu ebana, eta baita Gernikako Batzar Nagusiko areto nagusian dagozan esaldiak euskaratu zituen bere".

Aldizkari honetan, idazlan hau eskainiz, bihotzez txalotu gura dogu Pedro Pujana, euskararen alde eta gure herriaren alde bizitza luzean zehar egindako lan oparoa eskertuz.

*Patxi Uribarren Leturiaga*

Euskal Herriaren eskubideak eta izaera bera bere ukatu gura deuskuen une honetan ez jaku txarto etorriko Pedro Pujanak euskaratutako "Bizkaiko Forua" esku artean hartu, eta gure Herriak antzinatean izan dituen eskumenak gogora ekartea. "Historia magister vitae" dogunez norbaitzuk gogoan izan beharko leukee euskaldunok baditugula herri legez geure eskubideak, besteen artean euskaraz bizitzekoa. Foruetan ageri diran hainbat lerroalde argibide garbiak ditugu, lehena ahaztu barik etorkizunari ateak zabaltzeko. Guk ere erazoan aurrean antzinakoek modura "**men egin, baiña ez beste bete**" esan eta bete beharko dogu. Hona hemen, bada, zer ageri jakun foruen lehengo bi ataletan:



## LEENENGO ATALA, BIZKAI'KO LEGE

bereziak.



*I Legea. Bizkai'ko jaunak, oiñordeko edo ondorengo dala, Jaurerria bereganatzen dauanean, zin egitera etorri bear.*

deak onarturik, Bizkaitarrek ori eragiten dautsoela. Eta Bizkaitarrek ori eskatu ezkerro, aitaturiko onartzea ta ziña egiteko urte-barruan etorriko ez balitz, aitaturiko Bizkaitarrek, naiz Lurralde Lauan naiz Uri ta Enkartal-de ta Durangaldean bizi, ez dagioela erantzun, ez urte-saripeko diran Uri ta baserrietako artuenik eta urte-saririk eroatera Jaunagana joan, ezta aren Diruzain eta Batzailleagana bere. Eta Jaun onek agindurik eta betebearrik bitartean bidal badagi, *men egin, baiña ez beste bete.* Bizkai'ko Jaunak dituan oletako Errege-Txartelen sariak, oster, zin egitera etorri zein ez etorri, orrelakoak izan dagizala; urte-saririk eta artuenik, barriz, onartu ta zin egitera

**L**eenengo esan eben: Bizkaitarrek Lege Bereziz eta Foruz eta usarioz eta oituraz ebela, Bizkai'ko Jaun barri bakotxak, naiz aurreko Jauna illik dala, naiz beste edozein bidere bateg Jaurerriaren jarraipena eskuratzean, adiñez amalau urtekoa baldin bada, Bizkai'ra berbera etorriaz, bere ziñak eta agintzak barriztau egin bear dituala, Lege Berezi ta usario ta oiturak, frankeza ta Erri-Eskubide ta Foru ta lurak eta beragandik dituen mese-

## Leenengo Atala

etorteko eska badakio, ez dagiala ezer bere artu, arik eta etorri, onartu ta zin egin arte. Eta Jaun au amalau urtez beerakoa izango balitz, olakoan, beraren Gortea dan lekuan bertan, edozein lekutan dala, berak eta beraren Arduradunek aitaturiko Lege Berezi ta frankeza ta Bizkai'ko Forua, zin egiñik, onartu egin bear dituela. Eta gero, amalau urtera el daite-nean, Bizkai'ra etorri bear dauala, gorago esan danez, onartu ta zin egiteko.



*II Legea. Bizkai'ko jaunak zein lekutan eta zertaz zin egin bear dauan.*

**B**aita, esan eben: Foruz ebela, Jaun Aundiak, Bizkai'ra etorririk eta Bilbo Uriaundi-ko ateetan bertako Erreji-mentuaren eskuetan zin egiñik, auxe agindu bear ebela: Bizkai'ko Errege ta Jaun danez, bertoko Lurralde Laua ta Uriak eta bertoko Uriaundia ta Durangaldea ta Enkartaldea gordeko dituala, baita bertoko bizilagunak eta eurotariko bako-txaren lege berezi, frankeza

eta erri-eskubide guztiak, Foru ta usuario ta oitura ta lurrak eta beragandik dituen mesedeak bere, aurretiko aldietan izan zituenez eta gorde izan ziranez. Eta andik Larrabetzu'ko San Meterio Zeledon'era etorri-rik, Abade dan Elizgizonek Jaungoiko gure jaun sagaratuaren Gorputza eskuetan dauala, zin bera egin bear duala: aurretiko aldietan orain arte izan dituen frankeza ta erri-eskubide guztiak, Foru ta usuario ta oiturak, eta, Bizkai'ko Jaun eta Errege izan ziranez, bere Aita Errege-rengandik eta beste Errege-rengandik arturiko lur eta bizilekuak zintzoro ta egitan gorde ta eukiko dituala, euki ta erabilli izan zituenez; eta Bizkaitarrei ta Enkartalde-ko ta Durangaldeko, Zal-dun, Eskutari, Aitonon semeei eukiazo ta gorde eragingo dautsela. Eta andik Gernika'rantz datorrela, Bizkaitarrek, Aretxalaga gaiñean arrera egiñaz, eskuan mun egin bear dautsoela, euren Jaun eta Errege da-ta. Eta Gernika'ra etorri-rik, bertako Zugazpean, Bizkai'ko Batzarrak egin oi diran lekuan, Bizkaitarrek



## Leenengo Atala

dituen erri-eskubide, lege berezi ta frankeza ta Foru ta usario ta oitura guztiak, zin egiñik, onartu egin bear dituala, baita aurretiko Errege ta Jaunengandik dituen lur eta mesedeak bere zaindu ta euki ta zaindu eragin eta eukiaz egingo dituala. Eta andik Bermeo'ko Urira joan bear dauala, eta Uri aretako Santa Eufemia'n, Abade dan Elizgizonek, eliz-jantziz jantzita, Jainko Sagaratuaren Gorputza eskuetan dauala, eliza aretako altara gainean eskua ipiñiaz, zin bera egin bear dauala: Lurralde Lauko, Uri ta Uriaundi ta Enkartalde ta Durangaldeko Bizkaitarrek dituen erri-eskubide ta frankeza ta lege berezi ta usario ta oitura guztiak, orain arte izan eta orain dituen, zintzoro ta egitan gordeko dituala ta gordearazo bere egingo dituala.

*III Legea. Korrejidoreak eta Ikuslariak eta beste kargudunek, Bizkai'ko Jauna zin egitera etorri arte, euren karguetan iraun dagiela.*

**B**aita, esan eben: Foruz eta usarioz eta oituraz ebela, esaniko ziña ta onartzea egitera Bizkai'ko Jauna etorri zein ez etorri, Bizkai'ko Korrejidore ta Ikuslariak, Prestameru ta Alkate ta Merinuk eta oncen Leku-Ordezkariek euren karguetan iraun dagiela, Bizkai'ko Jaunak, zin egitera ta onartzera etorriaz, karguok bidez eta arrazoiz kendu bearrekoak dirala-ta, bere serbitzuari dagokion erabagia artu arte.